



Europako
Batzordea



Puri-purian EB ETA LGBTI PERTSONEN BERDINTASUNA

2020ko otsaila




Europar Batasuneko (EB) herritar guztiek dute tratu berdina jasotzeko eskubidea.

2019an inkesta egin zitzaion europarren % 76k uste zuen **gay, lesbiana eta bisexualek heterosexualen eskubide berberak eduki behar dituztela**. Ondorioz, 2015ean datu hori % 71koa zela kontuan hartuta, igoera egon da. Hala ere, lesbiana, gay, bisexual, transgenero eta intersexualek (LGBTI) diskriminazioa jasan dezakete beren bizitzetako eremu askotan, besteak beste lana bilatzean edo gizarte-segurantzako prestazioak eskatzean, eskolan, nahiz osasun-laguntza behar dutenean. Gorroto-egintzei eta are indarkeriari aurre egin behar izatea ere gerta dakieke. Halaber, segurtasunik gabe senti daitezke lantokietan, eskoletan eta espazio publikoetan.

1999az geroztik, **EBk baditu eskumenak sexu-orientazioarekin lotutako arrazoiengatik diskriminazio-kasuetan jarduteko**. Harrezkero, legedia prestatu eta neurriak hartu ditu LGBTI pertsonen babes juridiko eta soziala areagotzeko.

Liburuxka honetan, informazioa aurkituko duzu EBk lesbiana, gay, bisexual, transgenero eta intersexualen alde egiten duen lanari buruzko.

ec.europa.eu/lgbti #EU4LGBTI



EB-REN JARDUERA

EBk lanean dihardu homofobiari eta sexu-orientazio, genero-identitate eta sexu-ezaugarrien ondoriozko diskriminazioari aurre egiteko. Helburutzat hartu du LGBTI pertsona guztien eskubideen babesa bermatzea EBn.

Diskriminazioaren aurka borrokatzeko bere ahaleginen barruan, Europako Batzordeak ekintza-zerrenda bat aurkeztu zuen 2015ean. Bertan sartzen dira, besteak beste, hezkuntza, enplegua, osasuna, zirkulazio askea, asiloa eta gorroto-delituak.

Aldaketa sustatze aldera, Europar Batasuna EBko herrialdeekin ari da, elkarlan estuan, haiek baitute ardura LGBTI pertsonen eskubideak sustatu eta betearazteko, hala nola sexu bereko bikoteen aitorten juridikoa eta generoaren aitorten juridikoari buruzko arauak.



HERRITARRAK LANeko DISKRIMINAZIOTIK BABESTEa

2003tik, **EBn legez kanpokoa da pertsonak lanean diskriminatzea sexu-orientazioarekin** lotutako arrazoi-engatik. **Legediaren arabera**, EBko herrialde guztiek diskriminazioaren kontrako babes juridikoa eman behar dute lanpostu bat eskatzean, promozio bat eskuratzean eta prestakuntzaren batean parte hartzean, bai eta lan-, soldata- eta kaleratze-baldintzetan ere.

Babes horren barruan sartzen da lanaren eta gizarte-segurantzaren eremuetako diskriminazioaren eta jazarpeneren kontrako defentsa, sexu-berresleipeneren ondorioz gertatzen direnean (hau da, pertsona batek sexua aldatzen duenean, jaio zen uneko genero biologikoa bere genero-nortasunarekin bat ez datorrela uste duelako).

ENPRESEKIKO LANKIDETZA

Hala ere, LGBTI pertsonen berdintasuna benetan sustatu nahi bada, beste neurri batzuk behar dira, legez gain. 2010ean, **Aniztasunaren Gutunei buruzko Plataforma** sortu zuen EBk, enpresak, organismo publikoak eta irabazi asmorik gabeko erakundeak aniztasuna hobetzeko konpromisoa indartzera animatze aldera. Parte hartu duten erakundeek lantokian aniztasuna eta aukera-berdintasuna sustatzea erabaki dute, baita LGBTI pertsonentzat ere.

SEGURTASUNAREKIKO KONPROMISOA

Sarritan, LGBTI pertsonetako gorrotoa interneten eta gizarte-sareen bidez hedatzen da. Interneteko gorroto-pizgarrien aurka borrokatzeko, 2016an, Europako Batzordeak **jokabide-kode bat** adostu zuen Facebook, Twitter, YouTube eta Microsoftekin. Kode horretan eskatzen zitzaizkien 24 orduko epean berriki zitzatela legez kanpoko gorroto-dei gehienak, eta, beharrezkoa izanez gero, eduki horiek ezabatu. Instagram, Snapchat, Dailymotion eta jeuxvideo.com 2018an eta 2019an batu ziren jokabide-kode horretara.

Delituen biktimei errekonozimendua zor zaie, bai eta errespetuzko tratua ere, bakoitzaren beharizan indibidualen arabera. **Biktimen eskubideei buruzko Zuzentarauak** biktimentzako eskubide lotesleak eta EBko herrialdeentzako betebeharrak argi ezartzen ditu.

Europar Batasunaren eremuan, gobernuetako, nazioarteko erakundeetako eta gizarte zibileko adituen talde bat lanean ari da intolerantziaren eta diskriminazioaren aurka borrokatzeko, baita biktima horiek LGBTI pertsonak direnean ere. Talde hori laguntza ematen ari da gorroto-delituak eta gorroto-pizgarriak prebenitu eta gainditzeko politiken garapenean. Horren adibide, orientazio batzuk argitaratu dituzten gorroto-delituen biktimei justizia, babesa eta laguntza bermatzen dakien, eta, halaber, orientazioa eta prestakuntza eman die poliziariei eta auzitegiei.

EBk hau bermatu nahi du: LGBTI pertsonen gainerako pertsonen aukera berberak izatea osasun-arreta jasotzeko. LGBTI gaiei buruzko prestakuntza-gida espezifikoa prestatu dituzte osasuneko profesionalentzat. EBko herrialdeak, halaber, lankidetzan ari dira GIBa, sexu-transmisioko infekzioak, tuberkulosia eta hepatitisia prebenitu, antzemateko probak egin nahiz artatzeko talde zaurgarrietan (LGBTI pertsonak barne), diagnostiko goiztiarra ezarri eta denei arreta hobea emateko asmoz.

EBko herrialde guztiek dituzte eraso, jazarpeneren edo gehiegikerien biktime izan diren pertsonen laguntza emateko lehen nazionalak.

MUGAK ZEHARKATZEN

EBko herritar guztiek dute EB barruan askatasunez mugitzeko eskubidea. Zirkulazio askeko eskubide horrek EBko beste edozein herrialdetan bizi, ikasi edo lan egiteko erraztasunak ematea du helburu. Hala ere, praktikan, LGBTI pertsonen zailtasunak izan ditzakete mugak zeharkatzean. Sexu bereko bikoteek, esaterako, zailtasunak izan ditzakete beren harremana edo seme-alabak aitortzeko EBko beste herrialde batean.

Batasunaren Zuzenbideak zirkulazio askerako eskubidea hedatzen die, baldintza jakin batzuetan, EBko herritarren zuzeneko senideei, hala nola ezkontide edo seme-alabei, nahiz eta haiek EBko herritarrak ez izan. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak **argi eta garbi adierazi du** sexu bereko ezkontideek eskubidea dutela EBko beste herrialde batean bizitzeko, beren bikotekidea legez bertan ezarri denean, are harrera-herrialdeak sexu bereko pertsonen arteko ezkontzak legeztatuta ez baditu ere.


Orokorrean, EBko herrialdeek lege propioak egiten dituzte ezkontzei buruz, barnean hartuta sexu bereko pertsonen arteko ezkontzak eta legez aitortutako beste harreman batzuk, elkartze zibilak kasu. Ondorioz, ezkontzaren eta elkartze zibilen definizio zehatza aldatu egin daiteke herrialde batetik bestera.

EBk legedia ez-sexista ezarri du familiaren alorrean, herritar guztiei aplikatzeko, LGBTI herritarrak barne. EBren araudiak erraztasunak ematen ditu mugaz gaindiko gaiak ebazteko alor hauetan: dibortzioa, gurasoen eskubideak, mantenua, ondorengotzak eta bikoteen araubide ekonomikoa. Araudia lagungarri zaie bikoteei eta familiei, jakitun egon daitezen estatu-kideetako zein auzitegiak epaituko duen beren gaia eta zein legedi nazional aplikatuko den; halaber, epaiak beste estatu-kide batean aitortu eta betearazteko erraztasunak ematen ditu.

ZURE ESKUBIDEAK BABESTU ETA ZABALTZEA

LGBTI pertsona zaren aldetik, badituzu eskubideak.

Zure eskubideak urratu direla uste baduzu, salaketa jar dezakezu eta konponbide bat eskuratzen saiatu, zure antolamendu juridiko nazionalen. Auzitegi nazionalak Europar Batasuneko Justizia Auzitegiarekin lanean ari dira, EBko legeak zelan aplikatu behar diren argitzeko. Informazio gehiago behar baduzu tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko arauak zure herrialdean nola aplikatzen diren jakiteko, jar zaitez harremanetan **Berdintasunerako Organismoen Europako Sareko** kide nazional egokiarekin. Berdintasunerako organismo guztiak ez direnez sexu-orientazioaz arduratzen, webgunea kontsultatu beharko duzu bertan jorratzen diren gaien ikuspegi orokorra lortzeko. Organismo horiek, gobernuz kanpoko erakundeek eta sindikatuek laguntza eman ahal izango dizute, diskriminazioa jaso duzula uste baduzu, besteak beste lanean edo lan bat eskatzean.



- SEXU BEREKO PERTSONEN ARTEKO EZKONTZA AITORTUA EBko **13** estatu-kidetan
- SEXU BEREKO PERTSONEN ARTEKO ELKARTZE ZIBILAK AITORTUTA EBko **8** estatu-kidetan
- LEGEZKO AITORPENIK EZ SEXU BEREKO BIKOTEENTZAT EBko **6** estatu-kidetan

Zure estatuan LGTBI komunitatearen ganean dauden jarrerrei buruzko informazio gehiago eskuratu dezakezu lotura honetan.

AURRERAPENAREN EBALUAZIOA

Urtero, Europako Batzordeak txosten bat argitaratzen du. Bertan, jarraipena egiten du, LGBTI pertsonen berdintasuna sustatzeko ekintzen zerrendak zer aurrerapen izan duen EBn.

Europako Batzordea arduratzen da, baita ere, Batasunaren Zuzenbidearen aplikazioaren jarraipena egiteaz, eta EBko herrialdeek LGBTI pertsonen berdintasuna sustatzeko aldera hartu dituzten neurriei buruzko informazioa ematen du.

Azken baliabide gisa, Europako Batzordeak, beharrezkoa balitz, EBko herrialde baten aurka jo ahalko luke, baldin eta EBren legedia beteko ez balu, auzia EBren Justizia Auzitegira eramateraino. 2008an, Europako Batzordeak proposatu zuen beste eremu batzuetara hedatzea sexu-orientazioan oinarritutako diskriminazioaren kontrako babesa, besteak beste gizarte-babesera (horren barruan sartuta gizarte-segurantza eta osasun-laguntza), hezkuntzara, eta zerbitzu eta ondasunak (etxebizitza barne) eskuratzeko bidera.

Hala ere, proposamen horrek ez du orain arte lortu estatu-kide guztien adostasun nahitaezkoa. Edozein kasutan, estatu-kide batzuek dagoeneko ezarri dute legedia, Batasunaren indarreko Zuzenbideak eskatzen duenaz harago doan babesa eskaintzeko.

BERDINTASUNA SUSTATU ETA GIZARTE ZIBILA BABESTEKA

Gizarte zibileko erakundeek aldaketa positiboak sustatzen laguntzen dute. Hori dela eta, Europako Batzordeak LGBTI erakundeak babesten ditu, hala nola ILGA-Europe, Lesbiana, Gay, Bisexual, Trans eta Intersexen nazioarteko Elkarteko kidea, Transgender Europe eta IGLYO. Halaber, Europako Batzordeak finantza-babesa ematen die LGBTI erakundeei maila nazionalean, Eskubideen, Berdintasunaren eta Herritartasunaren Programaren nahiz Erasmus+ programaren bidez. Funts horiek lagungarri zaizkie erakundeei, gizarteak kontzientzia har dezan LGBTI pertsonak gainditu behar dituzten diskriminazio eta erronkei buruz. Erasmus+ programak, adibidez, «P.R.I.D.E» eta «Labels Down» proiektuak babestu ditu, LGBTI komunitatearen gaineko estereotipoak hausteko helburuz.



Gehiago jakin nahi duzu EBn dituzun eskubideei buruz?

Enpleguko tratu-berdintasunerako esparru-zuzentarauak EBko herrialde guztiak behartzen ditu babes juridikoa ematera sexu-orientazioarekin lotutako arrazoiengatiko diskriminazioaren eta jazarpenaren aurrean, enplegu-eskarietan, promozioan, prestakuntzan, lan-baldintzetan, soldatetan nahiz kaleratzeetan.

Generoari buruzko zuzentarau bateratuak pertsona transgeneroak babesten ditu bizitza profesionalean, sexu-aldaketa dela eta jasan dezaketen diskriminazioaren aurrean.

Gizarte-segurantzaren arloko genero-berdintasunari buruzko zuzentarauak transgeneroak babesten ditu, sexu-aldaketa dela eta gizarte-segurantzaren jasan dezaketen diskriminazioaren aurrean.

Biktimen eskubideei buruzko zuzentarauak biktimentzako eskubide lotesleak ezartzen ditu, bai eta EBko herrialdeentzako betebeharrak argiak ere, eskubide horiek baliatu ahal izatea bermatzeko aldera.

Zirkulazio askeari buruzko EBren Zuzentarauak zirkulazio askeari buruzko eskubidea zabaltzen die, baldintza jakin batzuetan, EBko herritarren zuzeneko senideei, hala nola ezkontide edo seme-alabei, nahiz eta haiek EBko herritarrak ez izan.

EB-KO OINARRIZKO ESKUBIDEEN GUTUNA

*Gutunak 21. artikuluan dioenez, «debekatuta dago bereizkeria oro, eta bereziki honako hauek: **sexua, arraza, kolorea, herriko zein gizarte jatorria, ezaugarri genetikoak, hizkuntza, erlijioa zein sinesteak, iritzi politikoak zein beste edozein iritzi, gutxiengo nazional batekoa izatea, ondarea, jaiotza, ezgaitasuna, adina nahiz sexu-joera direla-eta egindako bereizkeriak».***

EBko zuzenbidea aplikatu behar den egoeretan soilik aplikatzen da artikulua hori.

MAY 17



**INTERNATIONAL DAY AGAINST
HOMOPHOBIA, TRANSPHOBIA & BIPHOBIA**

HARROTASUNA ETA ALIATUAK

Litekeena da pertsona batzuek ez jakitea LGBTI pertsonen zein erronkari egin behar dieten aurre. EBk LGTBI pertsonen eta bere aliatuen lekukotzen bideo batzuk finantzatu zituen Europa osoan zehar, kolektibo horri ikusgarritasuna eman eta herritarren artean kontzientzia pizteko. Bideo bakoitzak nortasunaren alderdi jakin bat jorratzen du, eta berariaz erakusten du LGBTI komunitatearekiko babesak eta elkartzunak benetan hobetu dezaketela pertsonen bizitza.



Tovaldas
Electrician

EBko erakundeek Homofobiaren, Transfobiaren eta Bifobiaren kontrako Nazioarteko Eguna babesten dute, bai eta EuroPride ekimena eta Harrotasunarekin lotutako beste ekitaldi batzuk ere. Halaber, horietan guztietan parte hartzen dute.

Europarrak harro daude bere aniztasunaz, eta gero eta pertsona gehiagok adierazten dute jendaurrean beren sexu-orientazioa edo genero-identitatea. Europarrek botoa eman diete homosexualak direla adierazi duten agintariei, tartean Luxenburgoko lehen ministro Xavier Bettel-i (ezkerrean) eta Irlandako lehen ministro (edo Taoiseach) Leo Varadkar-i (eskuinean).



Europako Batzordearen Bruselako Egoitza ostadarraren koloreekin argiztatu zuten 2019ko maiatzaren 17an, Homofobiaren, Transfobiaren eta Bifobiaren aurkako Nazioarteko Eguna ospatzeko.



Photo: gouvernement.fr

EB-REN JARDUERA MUNDUAN

EBkoak ez diren 70 herrialde baino gehiagotan, sexu bereko pertsonen sexu-harremanak oraindik ere delitutzat jotzen dira, eta, herrialde batzuetan, LGBTI pertsonak kondena jaso dezakete, are heriotza-zigorrena. Beste herrialde batzuetan, LGBTI pertsonak ez daukate aski babes diskriminazioaren eta giza eskubideen urraketan kontra.

EBk beste herrialde batzuk animatzen ditu, bermea eman dezaten sexu-orientazioa, genero-identitatea edo sexu-ezaugarriak ez direla izango indarkeriarako edo zigorretarako. motibo.

2019ko apirilean, esaterako, Brunéiko legeak kondenatu zituen EBk. Izan ere, sexu bereko pertsonen arteko harremanak zigortzen dituzte, harrikatze bidezko heriotza, espetxea edo zigorraldia tarteko.


«Ezin da inor zigortu beste pertsona bat maitatzeagatik. Hori ezin da inoiz delitutzat hartu.»

Federica Mogherini, Kanpo Gaietarako eta Segurtasun Politikarako Batasunaren goi-mailako ordezkaria eta Europako Batzordearen lehendakariordea, Europako Parlamentuak Brunéi-ri buruz egin zuen eztabaidan, 2019ko apirilaren 18an.

EB, era berean, diru-ekarle nagusietako bat da, mundu mailan, LGBTI pertsonen kontrako diskriminazioaren aurka borroka

egiten duten proiektuetan, batez ere demokraziarako eta giza eskubideetarako Europako tresnaren bidez. 2016az geroztik, EBk gizarte zibileko erakundeek antolatutako hamasei proiektu babestu ditu Asian, Afrikan, Latinoamerikan eta Ekialdeko Europan, guztira 5,2 milioi euroekin. 2018an, 10 milioi euroko funts berri bat jarri zuen martxan EBk, LGTBI aktibista eta erakundeak babesteko, hain zuzen ere LGTBI pertsonen diskriminazio-arrisku handiagoa duten gunetan.

EBra bildu nahi duten herrialdeek berariaz babestu behar dituzte diskriminazioa eta indarkeria jasaten duten pertsonak. LGBTI pertsonen eskubideen babesak eta sustapenak lehentasun dira EBrentzat «herrialde hautagai» horiei dagokienez, baita EBra biltzeko negoziazioen testuinguruan ere. Halaber, eskubide horiek babesteko sareetara bideratzen dira funtsak Mendebaldeko Balkanetan eta Turkian. Horrez gain, EBk LGBTI pertsonen eskubideak jorratzen ditu herrialde mugakideen (aizokideen) gobernuekin, eta gertutik jarraitzen du haien egoera, tokian-tokian. EBk, gainera, finantza-babesa ematen die «aizoko» eskualde osoan lan egiten duten erakundeei.



ec.europa.eu/lgbti #EU4LGBTI

Europa Batasunari buruzko galderarik?
Europe Direct-ek lagun zaitzake:
00 800 6 7 8 9 10 11,
<http://europa-direct.europa.eu>

Argitalpen honen bertsio interaktiboa (online edukietarako loturekin) aurki dezakezu, PDF eta HTML formatuetan, hemen: <https://op.europa.eu/webpub/com/factsheets/women/es/>

Argitaraldia: 1.a argitaletxe honetan: 2020ko azaroa
Ale-kopurua: 170 ale
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia. Lehendakaritza
Internet: www.euskadi.eus
Itzulpena: IZO (Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala)
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 • 01010 - Vitoria-Gasteiz
Inprimaketa: Printheus, S.L.
Lege-gordailua: LG G 00725-2020

Europako Batzordeko «Puri-purian» bilduman sartzen da.

© Europar Batasuna, 2020

Argazki guztiak © Europar Batasuna, kontraktorik adierazi ezean.

Zilegi da agiri hau berrerabiltzea, iturri bibliografikoa aipatuz gero.

Europako Batzordearen agiriak berrerabiltzeko politika, zehazki, 2011/833/EB Erabakian arautzen da (Aldizkari Ofiziala L 330, 2011.12.14, 39. or.).

EBren egile-eskubideen pean ez dauden argazkiak edo bestelako materialak erabili eta erreproduzitzeko, baimena eskatu behar zaie, zuzenean, egile-eskubideen titularrei.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA

PRESIDENCIA